II. ERANSKINA- ANEXO II

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, NAFARROAKO FORU ERKIDEGOAREN, ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA BERRESTEKO FORU ARAU PROIEKTUA, 2026-2029 ALDIAN SEI ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZARAKO OINARRIAK EZARTZEKO.**

Euskaltzaindia 1918an sortu zuten Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foru aldundiek eta, ordutik, erakunde horien babesa, aitorpena eta laguntza finantzarioa izan du.

Otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuak Euskaltzaindia aitortzen du, "Euskararen Erret Akademia – Euskaltzaindia" izenarekin; aldi berean, bere estatutuak onesten ditu.

Halaber, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 6. artikuluak, euskara euskal herriaren hizkuntza ofizial deklaratzeaz gainera, euskara kontuetan Euskaltzaindia erakunde aholku emaile ofizial gisa aitortzen du.

Azken urteotan administrazio publikoek, Euskaltzaindiaren jarduna sustatzeko eta bermatzeko hainbat neurri hartu dituzte, lehenik banaka, eta, pixkanaka, elkarrekin.

Orain, lankidetza horrekin jarraitzea proposatzen da, Euskaltzaindiaren ikerketa jarduerari eutsiko zaiola bermatzeko. Hartara, administrazio publiko izenpetzaileek eta Euskaltzaindiak 2026-2029 aldirako lankidetza hitzarmen bat adostu eta onetsi dute, aukera emango diena

**PROYECTO DE NORMA FORAL DE RATIFICACIÓN DEL CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA, LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA, Y EUSKALTZAINDIA PARA ESTABLECER LAS BASES DE COLABORACIÓN ENTRE LAS SEIS INSTITUCIONES EN EL PERÍODO 2026-2029.**

Euskaltzaindia, desde que fuera fundada en 1918 por las diputaciones forales de Bizkaia, Gipuzkoa, Álava y Navarra, ha contado con el apoyo, reconocimiento y ayuda financiera de dichas instituciones.

El Decreto 573/1976 del 26 de febrero reconoce a la Academia de la Lengua Vasca bajo la denominación de “Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia", al tiempo que aprueba sus estatutos.

Asimismo, el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, además de declarar al euskara lengua oficial del País Vasco, reconoce a Euskaltzaindia como institución consultiva oficial en lo referente al euskera.

En los últimos años, las diferentes administraciones públicas han adoptado, primero individualmente, y, progresivamente, de forma conjunta, distintas medidas orientadas a fomentar y garantizar la actividad de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

Ahora se propone continuar con esa colaboración para garantizar el mantenimiento de la actividad investigadora de Euskaltzaindia. De este modo, las Administraciones Públicas suscribientes y Euskaltzaindia han consensuado y aprobado un convenio de colaboración para el período

Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación https://e-s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove
Egiaztapen kodea Código de verificación ytJa-vBTM-f4Hz-BQ6k

koordinatzeko, erabilgarri dauden baliabideen kudeaketa optimizatzeko eta epe ertain eta luzerako helburu eta erronka berriak planteatzeko, etorkizunera begira euskara ikertu eta zabaltzeko jardueren ikuspegi integratu batean. Gainera, Euskaltzaindiaren kudeaketa eta jarduerak orientatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko tresna da hitzarmen hau.

Arabako Lurralde Historikoko erakunde antolamenduari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak 6. artikuluan xedatzen du Batzar Nagusiei dagokiela berrestea Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin eta beste lurralde historiko, autonomia erkidego edo probintzia batzuekin hitzarmenak izenpetzeari buruz foru aldundiak egindako proposamenak.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 6.1.b)3. artikuluak Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluari esleitzen dio "Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuko Gobernuarekin, beste lurralde historiko, autonomia erkidego edo probintzia batzuekin egiten diren hitzarmenei" buruzko proposamenak onesteko eta Batzar Nagusiei bidaltzeko eskumena.

## ARTIKULU BAKARRA

Berrestea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Foru Erkidegoaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza hitzarmena 2026-2029 aldian sei erakundeen arteko lankidetzarako oinarriak ezartzeko.

2026-2029 que les permita coordinarse, optimizar la gestión de los recursos disponibles y plantear nuevos objetivos y retos a medio y largo plazo, en una perspectiva integrada de las actividades de investigación y difusión de la lengua vasca de cara al futuro. Además, este convenio constituye el instrumento para orientar, realizar el seguimiento y evaluar la gestión y las actividades de Euskaltzainida.

La Norma Foral de 7 de marzo de 1983, sobre Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava, dispone en su artículo 6 que corresponde a las Juntas Generales la ratificación de las propuestas de la Diputación Foral relativas a convenios con el Gobierno Vasco o el Estado, con otros Territorios Históricos, Comunidades Autónomas o Provincias.

Por su parte, el artículo 6.1.b).3 de la Norma Foral 10/2023, de 15 de marzo, de gobierno, organización y régimen jurídico de la Diputación Foral de Álava atribuye al Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Álava la competencia para aprobar y remitir a las Juntas Generales para su ratificación, las propuestas referidas a “convenios con el Gobierno Vasco o el del Estado, con otros Territorios Históricos, Comunidades Autónomas, provincias.

## ARTÍCULO ÚNICO

Se ratifica el convenio de colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Comunidad Foral de Navarra y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, y Euskaltzaindia para establecer las bases de colaboración entre las seis instituciones en el período 2026-2029.



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.05.06 06:52:54 Z